# Aurkezpena

Unibertsitate-katedra dugun bizi- eta lanbide-askatasuneko gotorleku honek gutxitan eskaintzen du honelako argitalpen bat aurkeztu ahal izatea bezalako eskari atsegingarririk, argitalpen honek jatorri baitu hausnarketa-jardunaldi bat, ohore handiz nik koordinatu eta Eusko Ikaskuntzak Vitoria-Gasteizen 2016ko apirilaren 20an bere giza talde profesional, motibatu eta efizienteari esker arrakasta handiz antolatu zuena. Jardunaldiak hiru aztergai ibili zituen: Euskal Autogobernuaren etorkizunari buruzko eztabaida, aniztasunaren balioa, eta Europako lau Estaturen botere politikoaren lurralde-banaketako ereduen azterketa konparatua. Lau Estatu horiek esperientzia luzea eta erantzun heterogeneoak dituzte gai nagusiaren inguruan: nola artikulatu gizarte modernoen gobernantza, horri guztiari gehitu behar zaiolarik ereduen konbergentzia Europa barruan eta Europar Batasunaren beraren, bere erakundeen eta bere ordenamendu juridikoaren erreakzioa halako aniztasunaren aurrean antolamendu-ereduei dagokienez. Hartarako, bi hausnarketa-esparru ere aztertu dira, funtsezkoak biak ere estatu-dimentsio baten barruan batera ageri diren errealitate nazionalek Estatu bakoitzaren barruan plazaratzen dituzten botere politiko handiagoko aldarrikapenen etorkizunarentzat: erregioen egitekoa Europan (Patricia Popelier irakasleari esker, zeinaren hausnarketak ezin hobeto jasota baitaude Asier Aranbarri Urzelaik egoki eta bikain idatzi, prestatu eta garatu duen testuan), alde batetik, eta, bestetik, barne hedapenaren erronka (Joxerramon Bengoetxea irakasleak landutakoa, oso modu iradokitzailean heltzen baitio arazoaren dimentsio orokorrari eta Eskoziaren kasuan duen berezko proiekzioari).

Orain argitara ematen dugun lanak islatu egiten du, bavariar eredua izan ezik (haren inguruko laburpen bat irakur daiteke konklusioetan, eta jardunaldian Philipp Stielek azaldu zuen), halako zenbait errealitate konparaturen muina, hain zuzen ere, Eskozia–Britainia Handia binomioa (Andrew Scott-ek bikain azaldu zuena), Flandes-Belgikakoa (David Criekemansek garatu zuena jardunaldiaren barruan), Suitzaren dimentsio bitxia (jardunaldian Nicolas Schmittek ezagutarazi ziguna) eta Europar Batasunaren eredu instituzionalizatuak plazan ditugun ereduen heterogeneotasunaren aurrean konponbide gisa eskain dezakeen gaitasuna oinarri harturik.

Eta horrek guztiak (Jardunaldiaren joanean bere isla izan zuena erakundeen ordezkaritza zabalarengan, Iñigo Urkullu lehendakaria buru bere amaierako hitzaldiarekin, eta Eusko Legebiltzarreko presidente Bakartxo Tejeriaren hitzaldiarekin, gai nagusitzat ibiliz X. Legegintzaldian jardun zuen Autogobernuari buruzko lantaldearen lanak aurkeztea) izan zuen helburu euskal erakundeetan eta politikan duen proiekzioa balioestea eta neurtzea. Bestalde, euskal politika bera ere izan zen protagonista aurrez aurreko saio batean Legebiltzarrean ordezkaritza duten eta ez du-

ten euskal indar politiko nagusietako buruzagiek-ordezkariek osatutako eztabaida/mahai-inguru iradokitzaile baten eskutik.

"Erabakitzeko eskubidea" izenekoaren inguruan dagoen halako irakinaldi sozial eta politikoaren testuinguruan inoiz baino beharrezkoagoa da burutu ahal izatea hausnarketa sendoetan eta azterketa zorrotz eta sakonetan oinarritutako eztabaidak, argitalpen honetan jasotakoen modukoak, zeren, eztabaida politiko hutsetik haratago, azterketarako metodologia sakona, zorrotza eta kalitate zientifiko kontrastatukoa eskaintzen baitigu.

Irakurleak baditu bere aurrean hainbat hausnarketa baliotsu, eta horien destilazio-hondar subjektibo edo partikularrak ahalbidetu egingo du hausnartzeko eta eztabaidatzeko esparrua zabaldu ahal izatea. Helburu hori lortuz gero, esan ahal izango dugu arrazoizko moduan bete dela Jardunaldi honen antolatzaileen xede nagusia, zeren argitalpen honetan aztertutakoaren moduko esparru hagitz konplexuetan desiragarriena izaten baita ihes egitea errazkeriaz manikeismo sinplifikatzaileaz baliatzeari: ez dago eredu onik edo txarrik, hoberik edo okerragorik: denek ere erakutsi dute jakin dutela bere Estatuaren eta gizartearen errealitate sozial eta politikora egokitzen; denek ere lortu dute dauden interes ezberdinen arteko oreka beren dinamismoari eta eboluzio-dosiei esker, kultura politiko konstruktiboari esker, Zuzenbide eta politika binomio beti zailaren arteko egokitzapenari esker.

Sustatuko ahal du hau irakurtzeak bokazio konstruktibo hori! Hau da, Eusko Ikaskuntza sozietatearen zuzendariek jardunaldia antolatzeko eta argitalpen hau koordinatzeko eta editatzeko orduan izandako bokazio bera. Jakitun baita zer interesgarria den euskal gizarte gisa dugun etorkizunarentzat apriorismorik eta konplexurik gabe ekitea eztabaida estimulatzaile bezain beharrezko honi. Gure azken nahia: irakurleak juzga eta hausnar dezala.

Juan José Álvarez
*Nazioarteko Zuzenbide pribatuko katredaduna*
*Euskal Herriko Unibertsitatea*

## Presentación

Este reducto de libertad vital y profesional que constituye la cátedra universitaria ofrece pocos encargos tan gratificantes como el de poder presentar una publicación que, como la presente, tiene su origen en una Jornada de reflexión que tuve el honor de coordinar y que estuvo organizada con éxito por parte de la sociedad Eusko Ikaskuntza en Vitoria-Gasteiz el 20 de abril de 2016, gracias a su profesional, motivado y eficiente equipo humano, Jornada que estuvo centrada en el debate acerca del futuro del Autogobierno Vasco, en el valor de la diversidad y en el análisis comparado de modelos de distribución territorial del poder político en cuatro Estados europeos con dilatada experiencia y heterogéneas respuestas a la cuestión clave de cómo articular la gobernanza de las sociedades modernas, sumando a todo ello la convergencia de modelos dentro de Europa y la reacción de la propia Unión Europea, de sus instituciones y de su ordenamiento jurídico ante tal diversidad de modelos organizacionales, analizando dos ámbitos de reflexión claves para el futuro del debate abierto en torno a las reivindicaciones de mayor poder político dentro de cada Estado por parte de realidades nacionales coexistentes dentro de una dimensión estatal: el papel de las Regiones en Europa (gracias a la profra. Patricia Popelier, cuyas reflexiones son perfectamente plasmadas en el texto escrito preparado y desarrollado de forma atinada e impecable por parte de Asier Aranbarri Urzelai), por un lado, y el reto de la ampliación interna por otro (abordado de forma por el prof. Joxerramon Bengoetxea, que aborda de forma muy sugerente la dimensión general del problema y su proyección específica al caso escocés).

La publicación que ahora ve la luz editorial refleja, con excepción del modelo bávaro (sobre el que puede verse una síntesis en las conclusiones, y que fue expuesta en la jornada por parte de Philipp Stiel) la esencia de cada una de esas realidades comparadas basadas en el binomio Escocia-Gran Bretaña (brillantemente expuesto por parte de Andrew Scott), Flandes-Bélgica (desarrollado en el seno de la jornada por David Criekemans), la singular dimensión Suiza (que nos fue dada a conocer en la jornada de la mano de Nicolas Schmitt) y la potencialidad que el modelo institucionalizado de la Unión Europea puede ofrecer como cauce de solución ante la heterogeneidad de modelos en presencia.

Y todo ello (que en el desarrollo de la Jornada tuvo su reflejo en una importante presencia institucional, liderada por el lehendakari Iñigo Urkullu y su discurso de clausura y por la intervención de la Presidenta del Parlamento Vasco, Bakartxo Tejería, centrada en la presentación de los trabajos de la ponencia parlamentaria de Autogobierno que desarrolló sus trabajos durante la X Legislatura) orientado a valorar y sopesar su proyección sobre la realidad institucional y polí-

tica vasca, que tuvo su protagonismo en la sesión presencial de la mano de un sugerente debate/mesa redonda con presencia de los líderes-representantes de las principales fuerzas políticas vascas con y sin representación parlamentaria.

En el contexto de una cierta efervescencia social y política que rodea al denominado “Derecho a decidir” resulta más necesario que nunca el poder contar con debates anclados en reflexiones sólidas y en análisis rigurosos y exhaustivos como los contenidos en esta publicación que aporta más allá del debate estrictamente político una metodología de análisis exhaustiva, rigurosa y con calidad científica contrastada.

El lector tiene ante sí una suma de valiosas reflexiones cuyo subjetivo o particular poso de destilación permitirá ensanchar el ámbito de reflexión y de debate. Si este objetivo se logra podremos afirmar que la finalidad principal de los organizadores de esta Jornada se ha visto razonablemente conseguida, porque en ámbitos tan complejos como el abordado en esta publicación lo deseable es huir del fácil recurso al maniqueísmo simplificador: no hay modelos buenos ni malos, mejores o peores: cada uno de ellos ha demostrado saber adaptarse a la realidad social y política de sus respectivos Estados y sociedades, cada uno de ellos ha logrado el equilibrio entre los diversos intereses en presencia gracias a su dinamismo, sus dosis de evolución gracias a una cultura política constructiva, a una adecuación entre el siempre difícil binomio Derecho y política.

Ojalá su lectura estimule esta vocación constructiva, la misma que animó a los rectores de la sociedad Eusko Ikaskuntza a liderar la organización de la jornada y la labor de coordinación y edición de esta publicación, consciente del interés que para nuestro futuro como sociedad vasca tiene el afrontar sin apriorismos ni complejos un debate tan estimulante como necesario. Nuestro último deseo: que el lector juzgue y reflexione.

Juan José Álvarez
*Catedrático Derecho Internacional Privado*
*Universidad del País Vasco*

## Introduction

Professorship, a pillar of fundamental and professional freedom offers few assignments as rewarding as presenting a publication such as this. It originates from a conference that I had the honour of coordinating and which was successfully organised by the society, Eusko Ikaskuntza and its professional, motivated and efficient team in Vitoria/Gasteiz on April 20, 2016. The conference focused on discussions about the future of Basque self-government, the value of diversity and the comparative analysis of models of territorial distribution of political power in four European states with extensive experience and heterogeneous answers to the key question of how to shape the governance of modern societies. It also included the convergence of models within Europe and the reaction of the European Union itself, its institutions and its legal system to such diverse organisational models, analysing two areas key to the future of open discussions on claims for greater political power within each State by coexisting national realities within a state dimension. Firstly, the role of regions in Europe (thanks to Professor Patricia Popelier, whose reflections are perfectly expressed in the written text which was both accurately and impeccably prepared and developed by Asier Aranbarri Urzelai), and secondly, the challenge of internal expansion (addressed by Professor Joxerramon Bengoetxea, who very thought-provokingly tackled the overall dimension of the problem and its specific application to Scotland).

This publication now sees the light and reflects, with the exception of the Bavarian model (which is summarised in the conclusions, and that was presented at the conference by Philipp Stiel) the essence of each of these compared realities based on the Scotland-Great Britain binomial (brilliantly presented by Andrew Scott), Flanders-Belgium (presented within the conference by David Criekemans), the unique Swiss dimension (which we learnt about at the conference through Nicolas Schmitt) and the potential that the institutionalised model of the European Union can offer as an avenue of solution to the diversity of models in presence.

And all this (that during the conference was reflected in an important institutional presence, led by the Basque Country's Premier, or Lehendakari Iñigo Urkullu and his closing statement and the speech by the President of the Basque Parliament, Bakartxo Tejería that focused on the presentation of the work on the parliamentary commission on self-government carried out during the tenth legislative period) was aimed at assessing and weighing its application to Basque institutional and political reality. This played an important role in the face-to-face sessions of a fascinating debate/round table attended by representative leaders of the main Basque political forces with and without parliamentary representation.

Within the context of a certain amount of social and political turmoil surrounding the so-called "right to decide" it is more necessary than ever to have debates based on solid reflections and rigorous and comprehensive analysis such as the contents of this publication that goes beyond strictly political discussions and provides a comprehensive, rigorous and proven scientific quality analysis method.

The reader has before him a wealth of valuable insights and any subjective or personal impressions gained therefrom will help towards broadening the scope for reflection and debate. If this goal is accomplished, we can say that the main purpose of the conference organisers has been reasonably achieved. This is because with such complex subjects as those addressed in this publication; it is best to flee from easy recourse to a simple Manichaeism: there are no good or bad models, better or worse; each one of them has shown that it is adaptable to the social and political realities of its respective states and societies, each one has achieved the balance between the different interests present thanks to dynamism, a dose of development, thanks to a constructive, political culture, to a match between the ever difficult binomial of Law and Politics.

I hope that reading this publication encourages a more constructive spirit, the same spirit that inspired the governing body of the society Eusko Ikaskuntza to lead the organization of the conference and to coordinate and publish this work, knowing how important it is for our future as a Basque society to deal with such a thought-provoking as well as necessary debate without any preconceptions or hang-ups. Our last wish is for the reader to judge and reflect.

Juan José Álvarez
*Professor of Private International Law*
*UPV/EHU*